

## BIBLIAREN ITZULPENETIK LITURGIARAKO ITZULPENERA

### 1. Gaiaren aurkezpena, esperientzia pertsonaletik abiatuta

Urteetako esperientziaz baliatuz eta hortik sortu jatazan bi- zipenek bultzatuta, gogoeta batzuk eskeini gura neukez, ja- kingarri eta baliagarri izan leitekezalakoan<sup>1</sup>.

Bibliaren edozein itzulpenek, zuzena izan gura badau, ba- ditu bere baldintzak eta eskakizunak. Eta liturgiarako itzulpe- nek berariazko berezitasuna daukie, benetan eta zehatz ain- tzat hartu behar dabelako zein inguru berezi daben jomuga.

Helburuak eta jomugak hainbesteko zerikusia eta garran- tzia ete daukie, bada, itzulpenaren izatea bera eta jitea eraba- gitze eta determinatzeraino? Bibliaren itzulpena zelan ulertzen dan eta zein itzulpen mota gura dogun argi erabagitzeak emongo deusku erantzun egokia.

Erakargarri egiten jat, benetan, gaia. Izan bere, Bibliazale amorratua izan naz beti, eta neure bizitza guztian izan dodaz bidelagun Bibliako Jainkoaren Hitza bera, batetik, eta kristau- bizitzan zehar liturgiako era guztitako ospakizunetan entzun, irakurri, iragarri, adierazo, azaldu eta neure egiten ahalegindu nazan Jaunaren Hitz haragitua eta eguneratua, bestetik.

---

<sup>1</sup> Eleizen arteko Biblian eta liturgiarako itzulpen barrian lankide izan do- dan Ramón Irizarri zor deusat artikulu honetan agertzen dan gehiena. Nik berak Gasteizen, Teologiako Fakultadean esandakoak neuretu, euskeratu eta zeozertxu osotu egin dodaz. Beraganako esker onez eta beraren ome- nez egin dot gogoeta hau.

Abade egin nintzanetik (Bilbao, 1968-09-15ean), aparteko eran sartua bizi izan naz eremu horretako itzulpen munduan. Eta batzuetan gehiago bestetan gitxitxuago ekinez, ez naz sekula urrundu gure euskal eleizbarrutietako zeregin eta eginkizun garrantzitsu, maite eta delikatu horretatik.

Dinodanaren agerpen eta erakusgarri dira, jakina, bai bakarrean bai eta taldean bere, eleizbarruti arteko itzultzaileekin batera, burutu eta argitaratu doguzan Biblia, Liturgiako Meza Liburuak, Sakramentuetarako Osparkizun Liburuak, Katekesiko liburuak eta lagungarriak, Pastoraltzarako baliabideak eta gaintzeko lagungarriak.

Euskal Herrian, Bilboko gure eleizbarrutian eta euskal eleizbarruti arteko itzultzaileen taldean izan da nire jarduna, eta inguru horrek mugatuko dau nire gogoeten eremua.

Beste arrazoi batek be bultzatzen nau arlo honen erronka neure gain hartzera. Berezia eta apartekoa da itzulpenaren mundua. Ez da gehiengo handiarentzakoa, gitxiengo baten-tzakoa baino. Izan bere, *irakaskuntza eta ikasketa* munduari begira jartzen bagara, hutsune nabarmena barruntatuko dogu. Nik dakidanetik, begi-bistakoa da hutsunea: gure unibertsitateetan eta teologi ikasketa zentroetan ez dago ikasketa-proiektuen barruan Biblia-itzulpenaren gaineko aztergairik ez ikaskizunik. Gehiago oraindino: Biblia-itzulpenaren teoria eta praktikaren inguruko mintegirik be ez da eskeintzen gure arteko ikastetxeetan. Tamalgarria da zulo hori. Izan bere, ukaezina eta zerikusi handikoa da gaiaren garrantzia eta beraren eragin praktikoa.

### **1.1. Aurrekariak**

Aspaldikotasun ohoragarriak –Bibliaren testua behin betikoa izatera heldu aurretikoa–, etengabeko tradizinoak eta gaurkotasun biziak adierazten dabe Biblia-itzulpenaren zeregin larriaren garrantzia.

Biblia da, eta era parekaezinean gainera, gizateriaren kultur historian gehien itzuli izan dan liburua.

Itzulpen-interpretazino jardueraren lehenengo testigantza, ahozkoa, ez idatzia, Neh 8an aurkitzen dogu. Bertan agertzen danez, Esdras-ek Torah-ren irakurketa publikoa egin eban. Eta Esdras-en laguntzaileek, levitarrek, Legearen azalpena egiten eutsoen herriari. *“Zehatz eta garbi irakurtzen eben Jainkoaren Legearen liburua, esanabia azalduz herriak ulertzeko eran”* (Neh 8,7-8). Ikaragarria da irakurketa horren eragina: negar eta jai egiten dau herriak “ulertu egin ebezalako entzundako berbak” (Neh 8,12). Eta hori jaiak (Txabolen jaiak) irauten dauan zazpi egunetan zehar, zortzigarrean batzar nagusiarekin amaituz. *Azalpena* hitzak hemen, hebreeratik aramaierara itzultzea adierazten dau seguruenik.



1986ko abenduan. Ezkerrean: Jose Arregi, Jose M<sup>a</sup> Rementeria, Joan Mari Olaizola, Dionisio Amundarain, Felipe Fuenterrabia, Jose Luis Aperribai. Eskuman: Jesus M<sup>a</sup> Arrieta, Ramon Irizar, Iñaki Mendiguren, Carlo Buzetti, Lorentzo Zugazaga, Joan Otaegi.

Bada, Biblia-itzulpenaren tailerrak (askotan, itzulpena talde-lanean eginez) beti iraun dau bizirik eta jardunean, harako LXX Septuaginta edo Hirurogeta Hamarrak deitua dan greko-rako itzulpena egin zanetik gaur arte. Mundu mailan, igaro dan gizaldiaren erditik hona berariaz, Bibliaren itzulpen-arloak hazkunde harrigarria jasan dau.

Gaur egun baditugu Bibliaren itzulpen osoak edo zatikakoak 2300 hizkuntzatan edo dialektotan, Bibli Elkarte Batuak alkartearen informazioaren arabera. Hizkuntza eta dialekto horreetako batzuk, Bibliaren itzulpenaren bitartez lortu dabe ahozko fasetik idatzizkora pasatzea. Itzulpenen hazkunde horren oinarria Bibli Elkarte Batuen lan nekagatxean datza; izan bere, eurek sustatzen dabez era guztitara itzulpenak eta gogotsu dihardue Biblia mundu osoan zehar zabaltzen.

Bibliaren itzultzailea, beraz, itzulpen-tradizino zabal eta etenbakoaren olatuan aurkitzen da. Katolikoon artean, liturgia munduan berariaz, Vulgataren eragin nagusiaren menpe bizi izan gara. Gaur bere, Neo-Vulgata dogu erreferentzia ofiziala Bibliaren liturgiarako itzulpen guztietarako, eta ez jatorrizko hebreera eta grekoa. Ikusi *Scripturarum Thesaurus* konstituzino apostolikoa (Erroma, 1979): “[...] Haec Nova Vulgata editio etiam huiusmodi esse poterit, ut ad eam versiones vulgares referuntur, quae usui liturgico eta pastoralis destinantur”. Arau edo norabide horrek hainbat oztopo eta eragozpen sortuko deusku, larritasun estuak leporatzeraino itzulpen orokorren eta liturgiarako bertsino ofizialaren artean.

## **1.2. Gaiaren eragin praktikoa, eta Bibliaren itzulpenaren eta liturgiarako itzulpenaren arteko aldeak**

Aitaturiko garrantziaz gain, gai honek badauka “eragin praktikoa” be. Biblia jatorrizko testuetan irakurri ezin dabentzat egiten dira itzulpenak, jakina. Bibliaren erabiltzaileen ikaragarritzko gehiengoarentzat ez dago Bibliarik itzulpenean izan ezik. Itzulpena, beraz, ezinbesteko ordezkoa da, beronen

adierarik gogorreanean. Izan bere, gehixuago edo gitxitxuago, danok gagoz itzulpen beharrea eta itzulpenaren menpe.

Egia esan, ez dira asko Bibliaren itzulpen tailerrean diharduen beharginak, asko ez diranez hizkuntz eremu zehatz baten mugetan lantzen diran itzulpen-proiektuak. Halandaze, persona gitxiri eragiten deutse zuzen-zuzenean gaiak, beste arrazoi batzuren artean gaitasun linguistikoa, hizkuntza-gaitasuna eskatzen daualako.

Eta beste arlo askotan lez, hemen be produktuaren kalidadea da interesatzen jakuna. Badogu aukeran itzulpen kopuru estimagarria, eta gu gehienbat azken produktuaz baliatzen gara, jatorrizko testutik, arau-testu kanoniko aldagatxetik, gure hizkuntzetara egin dauan bidez arduratu barik. Bide hori, ostera, eragozpen, oztopo eta tranpaz josia dago, eta esan geinke ez dagoala inon eta inoiz itzulpen perfektu eta behin betikorik.



*2007ko urtarrilean. Ezkerretik eskumara: Iñaki Mendiguren, Jose M<sup>a</sup> Rementeria, Lorentzo Zugazaga, Jose Arregi, Eustasio Etxezarreta, Dionisio Amundarain, Jesus M<sup>a</sup> Arrieta, Lose Luis Aperribai. Makurtuta: Ramon Irizar, Enrike (Jose M<sup>a</sup>) Zabala.*

Itzulpen bakotxak bere ezaugarri eta berezitasunak ditu, eta horrek itzulpen batzuk beste batzukaz alderatzera eta aurrez aurre jartzera eroan behar gaitu, itzulpen bakarrera finfinean eta itsu-itsuan burua makurtu barik. Hori egitea ez da egongo, beharbada, guztien ahalbidean. Halan bere, ezinbesteko betebeharra litzateke beti maila akademikoan.

Itzulpenagazko menpekotasuna sakonagoa eta erro-errotikoa da liturgiarako itzulpena jaisten bagara. Bibliaren itzulpen orokorrak ugariak eta askotarikoak dira, bai kopuruz bai eta kalidadez be. Bibliaren liturgiarako itzulpena, oster, ez da aukerakoa edo hautazkoa, nahitaezkoa eta ezinbestekoa baino. Hemen eskeintza ez da plurala edo askotarikoa, bakarra eta derrigorrezkoa baino.

Eta, zelan edo halan, guztiongan dauka eragina, pastoraltza ekintzaileengan, katekistengan, liturgiako arduradunengan edo liturgia-ospakizunetako partaideengan. Liturgia-arloan danok gara derrigorrezko bezero, bakarra dalako liturgiarako itzulpena eta horretan ez dago ezelako aukerabiderik.

### **1.3. Gaztelaniazko itzulpeni begirada**

Gaztelaniaz Bibliaren itzulpenen bilduma eta sorta zabala eta orekatua dogu, eta kalidade onekoa. Hori da gure lehenengo begiradak agertzen deuskuna. Eta itzulpenok, gainera, itzulpen mota desbardinez osotutakoak ditugu.

Adibiderako, lau itzulpen hartu geinkez erreferentzia modura, gure artean zabalduenetarikoak:

*Biblia del Peregrino* (Madril, 1993). BP deituko deusagu aurrerantzean.

*Biblia de Jerusalén* (Bilbo, 1967). BJ deituko deusagu.

*La Biblia*. La Casa de la Biblia (Madril, 1992). CB deituko deutsagu.

*La Sagrada Biblia* (Madril, 2010). Espainiako Gotzainen Batzarrarena. GB deituko deutsagu.

Biblia-itzulpenak erispide eta jokera desbardinak tarteko dirala egin izan dira. Hortik eratortzen dira hainbat apartekotasun eta berezitasun, bakotxaren aukeren arabera. Badira autoreak, sailkapen moduko zerrendak egin dabezanak. Carlo Buzzetik (Buzzetti, 1976), adibidez, Elizen arteko Biblia euskeratu genduanean gure asesore izanak, lau taldetan sailkatzen ditu Bibliaren itzulpenak: *literalak*, *literarioak*, *liturgikoak* eta *kateketikoak*. Azken honeri itzulpen *pastorala* alkartu eta gehitu geinkeo, beharbada.

Lau itzulpen mota honeek nahiko gertu egon leitekez aita-tu barri doguzan Bibliaren itzulpenakaz, liturgiakoa aparte geratzen dala:

BJ: literala.

BP: literarioa<sup>2</sup>.

CB: kateketiko-pastorala dala esan geinke<sup>3</sup>.

GB: literalean sartu beharko geunke.

---

<sup>2</sup> “Creo que la Biblia del Peregrino mejora la aportación literaria” (Alonso, 1993: 12).

<sup>3</sup> “Convencidos de que el conocimiento de la palabra de Dios es el mejor camino para la evangelización, ofrecemos el texto sagrado, acompañado de notas e introducciones, a los sacerdotes, a los catequistas y a todo el pueblo cristiano, sin olvidar a todos aquellos que desde otros credos y convicciones desean conocer el mensaje del Libro de los libros” (AA.VV., 1992: VIII).

Itzulpen-jokera hain zabaletan sailkatzea simplista samarra dala autortzen dogu; halan bere, norabidea nahiko ondo agertzen deusku, autoreek adierazten daben asmoa eta guraria aintzat hartzen badogu.

Bai, baina..., eta *liturgiarako* itzulpena, zer?

Biblia-itzulpen barriak erregularitasunez bideratzen eta merkaturatzen diran artean, itzulpen liturgikoak aldatu barik irauten dabe hamarkadetan. Horrek erabilpenaren eta errutinaren ahuldura eta makaltasunera garoaz, eta itzikeriaren eta ahazmenaren gurpilean jausten gara.

Itzulpenek, barriek edo erabarrituek, asmo edo helburu bikotxa izan ohi dabe: hizkuntza aldetiko eta literatura aldetiko hobekuntzak sartu eta Bibliaren ikerketan lortu izan diran frutuak gehitu eta txertatzea (itzulpenari berari dagokionean, eta gainontzeko osagaietan, sarreretan, oharretan, e.a.). Liturgiarako itzulpenaren biziraupena hain luzea izateak, oster, gero eta desgaste larriagoa eragiten dau.

Itzulpen liturgikoak beste itzulpen guztiak adinako arreta merezidu dau, gitxienez. Izan bere, kristinau-herriaren gehien-goia zelan hurreratzen da Jainkoaren Hitzera? Funtsean, eta batez bere, liturgian eskeintzen jakon Bibliako testuaren bitartez. Halandaze, arduraz eta zehatz landu beharko geunke liturgiarako itzulpena, askok eta askok hortxe bakarrik dabelako Jainkoaren Berbearen janaria.

#### **1.4. Euskerazko itzulpeni begira**

Mundutxu honetan dabilzanentzat ezagunak ziran Olabideren, Duvoisinen eta Kerexetaren itzulpenak:

Olabide: Olabideren Biblia deituko deusagu (OB): Bilbo, 1958.



Duvoisin: Duvoisinen Biblia deituko deitsagu (DB): Bilbo, 1972 (= Londres, 1859-1965).

Kerexeta: Kerexetaren Biblia deituko deitsagu (KB). Bilbo, 1976.

Oraintsuago, beste batek irabazi dau irakurleen gehiengoa, Elizen arteko Bibliak:

Elizen Artekoa: Elizen arteko Biblia deituko deitsagu (EAB). Donostia, 1994.

1994. urtean argitaratu zan *Elizen arteko Bibliak* (EAB) iraultza moduko gertakizun garrantzi handikoa ekarri eban euskaldunon artera. Izan bere, jatorrizko hizkuntzetatik euskara batura egin dan Biblia osoaren lehenengo itzulpen modernoa da. Biblia Elkarte Batuak alkartearen eta Euskal Herriko Eleizbarrutietako biblista eta euskal itzultzaile talde baten artean, alkarlanean egin eta prestatu da. Askoren ustez, gure EAB hau, gaztelaniaz egin izan diran itzulpen onenen parean jarri geinke, ezelako zalantza barik.



Eta, euskeraz..., liturgiarako itzulpena? Aurretiaz euskeraz geunkazan liburu liturgikoen berrrikusketa bideratu zan 1999. urtean. Barrero aztertu behar ziran Meza Liburua eta Sakramentuen Ospakizunetarako liburuak. Arduraz eta zehatz egin beharreko lana izan da, domeketako eta astegunetako irakurgai-liburuak eta salmotezia berraztertuz. Gaztelaniaz ere, Espainiako Gotzainen Batzarrak eskatuta, Bibliaren itzulpen barria egin da (*Sagrada Biblia*, Madril 2010) eta euren adierazo dabenetik, horixe izango da liturgian erabili behar harko dan testua<sup>4</sup>.

Liturgiarako itzulpena eguneratzeko lana, lankidetzan osatu dogu Liturgiako Komisinoaren (Donostiako Ordezkaritza, batez bere) eta EAB egin genduan taldeko batzuren artean. Azken frutua, liturgiako ohiko testua eta EABkoa bateratzea eta zorionez alkar hartzea izan da, nahiz eta emoitza horretaz geroago eta astiroago hitz egin ahal izango dogun.

## 2. Biblia-itzulpenak alderatzen

Bibliaren itzulpena, edozein biblia-itzulpen, eragozpen eta oztopoz beteriko zeregina da. Azken itzulpena eskuetan izateak oztopoak estaltzera edo zatika eta era urrian eta mugatuan azaltzera eroango gaitu, beharbada. Itzultzaileak, ostera, txitean-pitean aurkitzen ditu eta, asmatu izanaren segurtasunik euki ez arren, urtenbide eta soluzinoa emotera behartua aurkitzen da. Oinarrizko, jatorrizko hizkuntzan zehatz ulertu behar dira terminoak, esapideak eta esamoldeak, xede edo jomugako hizkuntzan era argian eta ulergarrian eta sarkorrean emoteko.

---

<sup>4</sup> “La *Sagrada Biblia*. Versión oficial de la Conferencia Episcopal Española es la única traducción que se podrá utilizar en la Liturgia formando parte de los leccionarios, una vez que la Santa Sede conceda la preceptiva aprobación de los libros litúrgicos correspondientes” (Conferencia Episcopal Española, 2010: XVIII).

Bibliaren irakurleari ezin deusagu eskatu exegeta edo teologo izatea. Itzultzaileok arduratu behar dogu, bai hitzen eta baita jatorrizko irudi literarioen ordezeko zuzen eta ego-kiak ahalik zehatzen emoten. Biblisten eta itzultzaileen baterako lankidetzak erreztu eta aberastu egiten dau azken itzulpena.

Dana dala, kontuan izan behar dogu, bai berbaz berbako itzulpenean baita esapide eta irudien itzulpenean ere, badirala jokera desbardinak, bateriko edo besteriko itzulpena baldintzatzen edo bultzatzen dabenak.

## 2.1. Adibide argigarri batzuk

Gure itzulpenean (EAB) *justizia* ordez *salbamen-indarra* (Erm 3,21), *justifikatu* / *justifikazino* ordez *Jainkoak onartu* (Erm 3,24.28), *tradere* / *tradio* ordez *eskualdatu* (1Ko 15,3), *grazia* ordez *onginahia* (1Ko 1,4) ... eta beste asko ikusteko aukera izango dozu.

Esaten dihardugunaren argigarri modura hiru adibidetara joko dogu eta itzulpen desbardinak eskeiniko jakuz, eretxi eta jokera diferenteen eragina tarteko izanik.

### 2.1.1. Zelan itzuli JHVH Sebaot sintagma?

BJ: *Jahvé Sebaot, hebreerazko Berbera.*

BP: *Señor de los ejércitos.* Vulgataren aukera onartu dau. Nahiko iluna dala esan geinke. Zer armada? Zer gudaroste? Eta, gaurko irakurleari zer dinotso titulu hori JHVH-ri aplikatzeak?

CB: *Señor Todopoderoso.* Pantocrator. Gaurko irakurlearentzat ulergarriagoa, LXX, *Septuaginta* edo Hirurogeta Hamarrak deituriko Itun Zaharraren grekozko itzulpenetik jaso.

EAB: *Jaun Ahalguztiduna.*

### 2.1.2. *Dikaiosyne hitza zelan itzuli Mateoren ebanjelioan?*

Mateorengan hitzak dituan 7 adieretan, badirudi esanahia zera dala, gitxi gorabehera: ‘Jainkoaren borondateagazko adostasuna’. Argitzeko bidean, nahikoa da alkarregaz lotura daben testu bi aitatzea; Joan Bateatzaileagaz dauke zerikusia biek: Mt 3,15 eta Mt 21,32. “*Dikaiosyne*: justicia”, ohiko baliokidetasuna hartzen bada, testu bien itzulpena hurrengo hau litzateke gaztelaniaz: “Es conveniente que cumplamos toda justicia” eta “Vino Juan a vosotros en camino de justicia”.

BJren hautaketa hau da: Mt 3,15: “toda justicia”. Mt 21,32: “vino Juan a vosotros por camino de justicia”. Itzulpen literalak arazo larriak sortzen ditu eta esapidearen esangureaz ez aurrera eta ez atzera jartzen dau irakurlea. Hori bai, oharra dator laguntza eskeiniz: “Esapide biblikoa, biblia-adierazpidea. Joanek irakatsi eta gauzatu egiten eban gizakia “justo egiten dauan” Jainkoaren borondateagazko adostasuna”.

BPren hautaketa beste hau da: Mt 3,15: “cumplir toda justicia” hebreera sundakoaren ordeiz, gaztelaniaren eskakizunekin lotuagoa legokean “realizar la justicia plena” jartzen dau.

Mt 21,32: eraldaketa sakonagoa eskeintzen deusku: “vino Juan, enseñando el camino de la honradez”. Arrazoibakoa da *dikaiosyne* itzultzeko hitz desbardina erabiltzea eta koherentzia falta erakusten dau.

Alonsoren itzulpena (BP) baliokidetasun formala deitzen dogunaren bidetik doa gehienbat. Irakurleak ulertzen ditu berbak, baina noraezean geratzen da esanahiari dagokionez.

CBren hautaketak, barriz, beste honeek dira: Mt 3,15: “conviene que cumplamos todo lo que Dios ha dispuesto”. Eta Mt 21,32: “vino Juan a mostrar el camino de la salvación”. Ez-

baian eta zalantzan jarri geinke, beharbada, itzulpenaren barru-koherentzian edo baliokidetasunean asmatu izana, baina esanahiaren aurrean ipintzen dau irakurlea, zuzen-zuzenean. Horretara, baliokidetasun funtzionalean edo semantikoaren bidean, ereduan, sartzen da erabat CB.

Azkenik, hona hemen EABren bidea. Mt 3,15: “honela bete behar dugu osoki Jainkoaren nahia” (eta oharrean emoten dau berbaz berbako itzulpena). Eta Mt 21,32: “etorri zitzaizuen Joan Bateatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea azalduz” (eta oharrean jarri da itzulpen literala). Eta kontuan izan esplizitazioa be egiten dauala EABk, “Bateatzailea” dala esanez hemengo Joan. EABk, bada, koherentzia osoa jagoten dau hitzetan eta baliokidetasun dinamiko-funtzionalaren aukera garbia egiten dau.

### 2.1.3. *Erm 12,20 Es 25,21-22 aitatur (irudimen-bizketan)*

BJk itzulpen literala egiten dau: “si tu enemigo tiene hambre, dale de comer; y si tiene sed, dale de beber”; haciéndolo así, amontonarás ascuas sobre su cabeza”. Eta, ohi dauanez, oharrean adierazten dau zentzuna eta esanahia: “Los carbones ardientes, símbolo de un dolor punzante, designan los remordimientos que llevarán al pecador al arrepentimiento” (testuak halan be ez dino ezer “pekatari”aren gainean eta ez dago bapere argi ea damuaz hitz egiten dauan).

Beste hiru itzulpenek antzerako interpretazioa emonez itzultzen dabe irudia:

BP: “así le sacarás los colores a la cara” (eta oharrean bertsino literala).CB: “actuando así, harás que enrojezca de vergüenza” (eta oharririk egiten ez dauanez, azalpenak baino, ez jaku ezer esaten jatorrizko irudiaz).

EAB: bide berari jarraitzen deutso: “horrela lotsa gorritan utziko duzu” (oharrean itzulpen literala emonez eta

Es 25,2ra bialduz, han agertzen dan irudiaren interpretazioa be ez dala zurrta kontuan izanez).

Hori bai, autortu behar da Alonsok benetan asmatu dauala, irudi-baliokidetzan: “ascuas sobre la cabeza” / colores a la cara”. Kasu honetan ez da mira egitekoa itzulpen literala BJK bakarrik egitea, irudia gaurko irakurlearentzat hain arrotza eta ulergatxa izatean.

Adibide hutsak agertu doguz hemen, baina nahiko argigarriak dira, zabalago eta beste itzulpen askogaz be probatu leikezanak. Dana dala, jakin daigun eta aintzat hartu, urtenbide desbardinak itzulpen batek edo besteak aurretiaz hartu dituan oinarrizko aukera eta norabideen ondorio dirala. Halan bere, gogoan izan behar da baliokidetasun-eredu desbardinaren erabilera praktikoa aldagarria dala.

## **2.2. Biblia-itzulpenaren oinarrizko ereduak**

Itzulpena da lehenengo bitartekotza Bibliako testua jasotzaileagana –irakurle edo entzule– heldu daiten, eta itzelezko gehiengoarentzat bitartekotza ordezkazina gainera. Itzultzailea bitarteko edo zubi da testu beraren forma diferenteen artean, eta bitarteko baita egoera edo testuinguru komunikatzaile desbardin biren artean be. Alde biok aintzat hartu ezkeru, eta irudiaz baliatuz, tarte edo zati bi ditu itzulpen-ibilbideak: jatorrizko testutik itzulitakora doana bata, eta itzulitakotik irakurleagana doana bestea. Itzulpen batzuek lehenengo tartera mugatzen dabe ibilbidea; beste batzuek, ostera, garrantzi bardintsua edo handiagoa be emoten deutsoe bigarren tarteari, hau da, itzulitako testutik irakurleagana doanari.

Ondotxu jakina da itzulpena zeregin gatxa eta delikatua dana testu literarioari dagokionez. Ez da gauza bera informatikako testu bat eta testu literario bat itzultzea. Eta Biblia, ehuneko handi baten, testu literarioa da. Eta esapide horretan ez

da *poesia* bakarrik sartzen, benetan gatxa ondo itzultzen; *narratiba* testuak be hartzen ditu literario hitzak.

Aurrean dogu, adibidez, testu literarioa: zelan jokatu dogu? Berez sortzen jaku itauna: zer dino testuak? Beste itaun bat da, ostera, lehentasuna behar leukeana: zelan dino? Izan bere, dinoana dinoala edo egiten dauana egiten dauala, hizkuntzaren bidez dau esaten eta egiten. Eta, jakina, hizkuntza bakotxak, edozeinek, bere-bere baliabide linguistiko eta literarioak ditu, eta bitarteko moltso horregaz jokatzen dau.

Itzulpena ez da egiten hiztegiarekin eta gramatikarekin huts-hutsean, honako hizkuntza baten osagaiak beste batera erdi mekanikoki pasatuko bagenduz lez, honako ura (edukia) beste ontzi batera (hizkuntzetara) lekualdatuko bagendu lez. Jatorrizko testuaren kopiagintza hutsa baino gehiago birsorkuntza lana egin behar da. Jatorrizko testuak eta testu barriak, biek daukie euren izakera berezia, modu linguistiko-literario berezian eta propioan josia eta iraulia. Testu barriak jatorrizko testuaren benetako ordea izan gura dau osorik.

Jarri gaitezana, ostera, hizkuntzaren teoria komunikatiboren ikuspegian eta perspektiban. Mundu barri bat agertzen jaku hemen eta itzulpenaren jarduna sano be sano aldatzen jaku.

Biblia-testua gertaera komunikatiboa da; bertan igorle bategi mezu bat komunikatzen deutso jasotzaile edo hartzaile bateri. Eta itzultzaileak zera bilatzen dau: jatorrizko gertaera komunikatiboa barritzea, mezu berbera komunikatuz hizkuntza barri batean jasotzaile barriari, kultura-testuinguru erabat desbardinean aurkitzen diran hartzaile barriari. Ez da, beraz, hizkuntza batetik beste batera *zeozer (testua)* lekualdatze eta pasatze hutsa. Hemen *nonori* komunikatu behar jaku mezua. *Nonor* horrengan jarri behar dogu azpimarra, aurrean aitatu-

riko *zeozer* haretan baino gehiago. Defizitarioa litzateke komunikazioa jatorrizko mezua gaurko jasotzaileagana era ulergarri eta esanguratsuenean helduazoko ez baleu. Edozein forma, hobeto esanda, forma linguistiko zehatzak, mezuaren zerbitzura dagoz. Eta formaren imitazioak mezuaren komunikazioa galazoten edo oztopatzen badau, ezinbesteko izango da jatorrizkoaren formulazioa berrantolatu eta berregitea. Horregaitik, arrazoi osoz esaten dogu itzulpena birkreazioa dala.

Ikuspegi honetatik erabagigarria zera da: batetik jasotzailea dan hizkuntza eta bestetik benetako hartzaileak, euren kultura- eta hizkuntza-baldintzekin. Zenbat eta handiagoa izan hizkuntza-sistema biren edo kultura-mundu biren arteko distantzia eta desbardintasuna, hainbat handiagoa eta premi-nazkoagoa izango da baiokidetasun dinamiko-funtzionala ezartze eta erabiltzearen beharra.

Bibli Elkarte Batuek gogoeta sakona garatu dabe itzulpen-munduko teoriaren eta praktikaren inguruan. Izan bere, Bibliaren itzulpenetarako eta zabalkunderako burutzen daben ekimen eta jardueran, ezinbesteko egiten jake printzipioak, erispideak, itzulpen-prozedurak eta teknikak zehatz eta sakon lantzea. Eta horretaz guztiaz baliatu izan da ugari EAB. Pribilegiatuak be izan garala esan geinke, Biblia-itzulpenaz liburu argiak idatzi dituan Carlo Buzetti italiarra (g.b.), urteetan eta unibertsidadeetan (Erromako Gregorianoan eta Salesianoan) arlo honetan irakaslea, geurekin izan dogulako EABren itzulpenaren ibilbide osoan, Bibli Elkarte Batuen (BEB) ordezkari eta aholkulari.

Oinarrizko *eredu* bi nagusitu dira Biblia-itzulpen munduan: baliokidetasun *formala* (BF) eta baliokidetasun *dinamikoa edo funtzionala* (BD).

Baliokidetasun *formalak* jatorrizko forma ahalik eta artezen berresatera eta erreproduzitzera jotzen dau, nahiz eta ondotxu



dakigun ilusino eta ames hutsa dana itzulpenak jatorrizkoa mimetikoki erreproduzidu ahal dauala pentsatzea. Eta gainera hebreerari lotuegiak diran itzulpenak ilun eta jasangatzak izan ohi dira.

Baliokidetasun *dinamiko-funtzionalak*, semantikoa be deitua izan danak, askatasun handiagoz jokutzen dau jatorrizko hitzen formulazinoari dagokionez. Hemen lehenetasuna ez dauka “hitza hitzaren truk” legeak. Esanahia, signifika-dua, adiera da ardura nagusia, eta esanahia eta mezua da bialdu eta transmitidu gura dauana, irakurleak benetan ulertu ahal izan dagian.

Fideltasuna, zehaztasuna da, bai, itzulpenaren lehenengo legea. Fideltasunak, baina, aurpegi bi ditu: bata jatorrizko testuari begira dago, eta bestea jasotzaileari begira. Baliokidetasun formaleko (BF) itzulpena jatorrizkoari begira dago, ahalik eta doitasun handienaz erreproduzitzeko, nahiz eta horrek irakurleari kaltea ekarri testua ulertzerakoan. Baliokidetasun dinamikoa ((BD) irakurleari begira jartzen da, mezuari berari eta mezu hori irakurleak bereganatzeari lehenetasuna emonez.

Argi eta garbiak dira aukera bataren eta bestearen arriskuak: lehenengoa imitatzailea da eta ez dau behar leuken beste itzultzen (goian aitatu dogun itzulpenaren “lehenengo zatian” geratzen da, nahiko bermatu barik irakurleak esanahia ulertzerik). Eta bigarrena, eraldatzailea izanik, gehiegi itzultzearen arriskuan jausi leiteke. Arrisku biok baztertzea izango da itzultzaile onaren asmoa eta bide zuzena.

### **2.3. Biblia itzultzean baliokidetasun dinamikoa eredu dala erabili ohi diran itzulpen-prozedura batzuk**

#### *2.3.1. Esplizitazioa*

Esplizitazioa da txitean-pitean eta eten barik erabili ohi dan itzulpen-prozeduretako bat. Jatorrizko egoera komunikati-

boan kultura-testuinguru berbera partekatzen dabe bialtzai-leak eta hartzaileak. Halandaze, informazino askok ez dauke esplizitazinoaren preminarik; zenbat eta handiagoa izan bialtzailearen eta jasotzailearen kidetasuna/konplizidadea, hainbat zabalagoa da inplizituaren eta gainulertuaren eremua.

Gaurko irakurlearen testuagazko hartu-emonak, osterak, ez da konparagarria, ezta jatorrizko egoerarekin alderagarria bere. Han kidetasuna eta konplizidadea zana, arrotza eta ezezaguna da hemen. Eta alde eta desbardintasun horrek, ezinbesteko egiten dau inplizitua esplizitu egitearen itzulpen-prozedura.

Ez da bidezko testuan ez dagozan informazinoak sartzea. Bidezko eta beharrezko bere bada, osterak, testuan inplizitu geratu dan informazinoa esplizitatzea, gaurko irakurleak eragozpenik badauka testuak dinoana ondo jasotzeko. Adibidez, Joanen lehenengo epistolako hainbat pasarte anaforikoak dira, ez dabe subjektua esplizituki jartzen. Eta irakurketan aurrera egin ahala, desitxuratu eta galdu egiten da erreferentearen errastua eta sidurria. Eta ha barriro eskuratu behar da, testua argi ulertu gura bada.

Testua oraindino ilunagoa gertatzen da liturgian, zatikatua aurkitzen dogunean. Urtarrilaren 3ko lehenengo irakurgaia holan hasten da: “Senide maiteok: Harek Jainkoaren nahia egiten dauala badakizue, jakizue era berean Jainkoaren nahia egiten dauan edonor (guztia) harengandik jaioa dala”. Joanen epistolan badogu, gainera beste traba bat bere, nahikoa larria; erreferentea zein dan jakitea, Jainkoa ala Jesu Kristo, ez dala bapere erreza. Eta itzulpenak, ezinbestean aukera egin beharra dauka. Eta aukera egiteak interpretazinoa eskatzen dau, hau da, exegesira jotzea (nahiz eta exegetak eurak bere bat ez datozen beti).

Dana dala, “interpretazinozko itzulpena” espresinoa nahiko susmagarria eta desegokia egiten jaku. Garbia eta begi-

bistakoa da, ostera, ez dagoala itzulpenik interpretazino bakarrik. Kasu eredugarria da “pasibo teologikoarena”, Jainkoa izentatzen ez danekoa. Ezagutzen doguzan itzulpenak aurrean izanik, zein itzulpen da “fidelagoa”, literala (hitza hitzaren truk) ala subjektua esplizitatuz “Jainkoa” hitza jartzen dauana. Akabubakoak izan leitekez honelako adibideak...

### *2.3.2. Testuaren esanahia argitu*

Testuaren esanahia argitzea gura dau BDak, ulergarritasuna jokoan dagoanean. Itzulpen-prozedura hau, argitzea hatan be, ikusi barri dogun esplizitazioarekin lotua dago. Biblia-itzulpenaren arazoa ez da bakarrik linguistikoa, kulturala bere bada.

Hona hemen adibide bat. Kreazinoaren lehenengo kontakizunean, sei egunetan osotzen danekoan, errepikatzen dan formula berarekin amaitzen da egun bakotxari dagokion egintza kreatzailea.

Gaztelaniaz itzulpen erabat literala eginez Hasiera 1, 5ean dino: “Y fue tarde y fue mañana, día uno”. Beste horrenbeste bigarren egunean, hirugarrenean... Eta Jerusalemgo Bibliak (BJ): “Y atardeció y amaneció: día primero”. BPra jo ezkerok: “Pasó una tarde, pasó una mañana: el día primero”. Eta Casa de la Bibliak (CB) be BPren testu berbera jasotzen dau. Esapide hori, entzun ahala, ezaguna eta ulergarria zan atoan K.a. V. gizaldiko judeguintzat. Kultura-datua dago esamolde horren atzean: hebrear batentzat eguna arrastian, arrats beheran hasten da, eta arrastia-goiza binomioak egun osoa esan gura dau, hasierarik amaierara. Esapideak, bada, lehenengo eguna osorik adierazo gura dau. Halan be, “hitzez hitzeko itzulpena” gaurko irakurlearentzat nahaste-borraste bat bihurtzen dala deritxot. EABn hara gure itzulpena: “Honela, lehen eguna burutu zen”, hitzez hitzeko itzulpena oharrerako itziz.

Beste adibide bat, Mt 18,23-35ean daukaguna: parkamena emon jakon arren, berak lagunari parkatzen jakin ez dauan morroiaren parabola. Eta kontrastea ikaragarria da gainera hemen. *Hamar mila talentu* zor eutsozan morroiak erregeari, eta honek dana parkatu deutso; eta *ehun denarioen* zorra eukotsan lagunak morroiari, eta honek ez dau izan errukirik eta ez deutso parkatu. BJK eta CBK bertsino literala mantentzen dabe, baliokidetzak oharrean azalduz (lehenengo zifraren demasa azpimarratuz). BPK, hara ezustekoa, “hamar mila miloi” itzultzen dau lehenengo zifra, eta bigarreanean “ehun denario” jartzen dau, ezelako aldaketarik barik.

Gaurko irakurlearentzat aurreikusteko modukoa ez danez talentuen eta denarioen arteko diferentzia erreparatzea, baliokidetasun funtzionalera jo dau gure EABK kasu bietan, kantidadek espezifikatu barik: “milioi asko” lehenengorako, “diru pixka bat” bigarrenerako. Ehun denario, berez, kantidad estimagarria da; kontakizunean, oster, kantidad txatxarra, eze-rezkeria hutsa da erregeagazko zorraren kopuru ikaragarriarekin konparatu ezker.

Testua irakurle arruntarentzat, ez bakarrik Biblian aditua-  
rentzat, esanguratsua izan daiten, ezinbestekoa da esanahia argitzeko ahalegin handia egitea. Horregaitik esan dot gorago itzulpen literalak gitxi itzultzen dauala, edo ez dauala benetan itzultzen. Hitz batzuk jartzen ditu, bai, beste batzuen orde, baina testua ez dau ulergarri egiten irakurlearentzat.

Itzulpen funtzionalean apartekoa da itzulpenaren premina eta goragokoa baita eskatzen dan interpretazioaren maila be. Baliokidetasun dinamikoaren taiuko itzulpenak, jatorrizko testuaren analisi eta azterketa sakonagora behartzen gaitu, anbiguotasunak (gurata eginak batzuetan) argituz, adibidez. Eta sormen- eta kreatibidade-ahalegin handiagora bultzatu eta behartzen gaitu, oinordetzan hartuta daukaguzan ohiko formulak gainditzeko. Gure artean liturgiarako egin izan dan (zan)

itzulpenak, ezinbestean bereganatu dau akatsa, edo muga behintzat. Izan be, abadeak ziran itzultzaile guztiak eta buruz ekien latinezko testua; halandaze, Vulgatako formulak sakon barruratuak eta eurenganatuak eukiezan. Egoera horretan, ez da bape erreza irakurle edo entzule arruntaren lekuan nor bere burua jartzea, harentzako ulergarriak diran esapideak aukeratuz eta erabiliz.

#### **2.4. Biblia-itzulpenean sartutako oharrez**

Gorago esan dot ikasleak edo ikertzaileak itzulpen desbardinak alderatu beharko leukezala. Irakurle arrunta, ostera, ez dago ezelan be jarduera horreetan sartzeko, eta ez da arduratzen itzulpen arazoez. Sarritan ez da konturatu be egiten eskuetan daukan Biblia itzulpena danik. Dana dala, bidezko da itzultzaileei era guztitako informazioa eta argibideak eskatzea: ea zein eratako itzulpena egin gura izan daben, zein erispiderekin jokatu daben, zein helburu lortu gura izan daben eta itzulpena norentzat egin daben (ez dalako gauza bera ikaskuntzarako eta liturgiako gauzatu eta moldatu dan itzulpena, adibidez). Zehatz argitu beharko leukie jatorrizko testuaren, testu barriaren (itzuliaren) eta irakurlearen arteko hartu-emonak. Eta “itzulpen-oharrak” hartu-emonak oso esanguratsua da itzulpen mota desbardinak aukerak argitzeko.

Alonsok, adibidez, Nueva Biblia Españolaren (NBE) literatura-ekarpena azpimarratu dau, Bpk hobetua, bere ustez. Begira zer dinoskun: “itzulpen baten, literatura-testuetan berriaz, garrantzitsuena itzulpena bera dala deritxot (beste batzuen ustez oharrak dira garrantzitsuenak). Itzultzean jatorrizkoaren komunikazio osoa berregitea gura dogu. Orduan, ez bakarrik adimen edo doktrina aldetikoa, baita emozino, eragin, iradokizunezkoa... be” (Alonso 1993:12)<sup>5</sup>.

<sup>5</sup> “Al traducir intentamos rehacer la comunicación integral del original. Es decir, no sólo el contenido intelectual o doctrinal, sino también de la emo-

Arrazoia dauka Alonsok itzulpenaren garrantzia azpimarratzen eta testuaren autonomia berreskatzen dauanean. Horixe da, seguruenik, itzultzaile ororen helburu eta jomuga: Biblia-testua biluzik eskeintzea, ezelango euskarririk gabe, irakurlea testuaren aurrez aurre jarritz.

Asmotik errealidadera, baina, bide luzea dago. Behingoan gardena dan testuaren gurariak eta “pretentsinoak” badauka zerikusia beste itaun batez be, edozein itzulpenen inguruan sortzen dan itaun honez, adibidez: itzulpenak, itzulpen itxura erakutsi behar dau, ala disimulatu eta estaldu egin behar ete dau? Testua eta oharrak kontrajarritz emoten eban Alonsok bere eretxia. Oharrek, nahiz eta irakurleak irakurri gabe itzi leikezan, badabe balio bat, ordezkazina, eta hurrengo hau da: itzulpeneko testuak jatorrizko testuagaz dauan hizkuntza aldetiko eta kultura aldetiko distantzia eta urruntasuna islatzea. Gaindiezina da distantzia hori, eta benetako eskakizun dogu hori itzulpenean islatzea, testu eta oharrak osotzen daben itzulpenean agertzea, fidelitasun biko txaren eskakizun, jatorrizko testuagazko eta gaurko irakurleagazko fidelitasunaren eskakizun. Hori bai, “testu-oharrak” hartu-emonan desbardina izan ohi da itzulpen-eredu bat edo beste aukeratzean.

BPk ez dauka oharrik (erreferentzia-aipamenetatik aparte). Ez da, ezelan be, bere balioetan aitatzekoa, batez be ondortxu dakigunean itzulpen bidean testuagazko lizentziak (manipulazinoak?) eta justifikazino eskasa dauken ustezko itzulpenak gauzatzen dirana hainbat bider. Irakurlea, gitxienez, jakinaren gainean ipini beharko leuke. Alonsok egingdako itzulpenaren merituak, berak azpimarratu eta azaldu dauanez, beste arlo eta sail batzuetan dagoz. Dana dala, BPk

---

ción, el impacto, la sugerencia... Al traducir textos literarios, no los vertemos genéricamente a la lengua receptora, sino específicamente al nivel del lenguaje y al género literario particular: cantos de amor, refranes, elegía, retórica, relato...” (Alonso, 1993: 12).

baliokidetasun formalaren ereduari jarraitzen deitso gehienbat.

CBk be ez dauka oharrik. Horren ordez, benetako azalpen edo iruzkina aurkitzen dogu orriaren behealdean, eta balio handikoa gehienetan. Hauxe izango da, beharbada, gaztelaniazko itzulpenetan katekesirako eta pastoraltzarako ondoen egokitzen dana, eta baita bakarkako eta taldeko irakurketarako onena be, azalpenaren laguntza aberatsez. Baliokidetasun dinamikoaren sailean kokatzen da CB. Horregaitik, ohar zehatzen hutsunea barruntatzen da, testu aldetikoak berariaz; arlo literarioa nahiko argi azaltzen da, gehienetan, azalpenarekin.

BJk ohar ugari dauka. Hori dala-eta, Bibliarik erabiliena da ikasketetan, jatorrizko testuagaz dauan hurkotasunagaitik, eta hitzen eta formula literarioen itzulpenean agertzen dauan koherentziagaitik. Baliokidetasun formalaren sailean kokatzen da ausardiaz BJ. Halandaze, “testua-oharrak” hartu-emona aukera hori egin dauanaren bidetik doa: itzulpen literala jartzen da testuan, testuaren iluntasunak argitzeko oharrak erabiliz.

EABk be ohar ugari dauka (ez edukiaren/doktrinaren aldetik). Buru-belarri egiten dau baliokidetasun dinamikoaren aukera itzulpen bidean, erabat BJen kontrakoa: itzulpen esanguratsua, adiera jasotzen dauana eskeintzen dau testuan, eta oharretarako izten dau itzulpen literala. “Testu-oharrak” ez dira bertsino literala emotera mugatzen. Sarritan, BJen antzera, beste informazio batzuk emoten dira: itzulpena hipotetikoa dala, jatorrizkoa biziata dagoala edo iluna eta zalantzazkoa dala; edota, ordezko itzulpenak emoten dabez, aukeratua izan danaren bestean legezko izan leitekezanak... eta abar. Ez dogu ahaztu behar Biblia-testua, behin baino sarriago, problematikoa egiten jakula. Bidezkoa ete da itzulpenaren alde hori mozorrotzea edo ezkutatzea?

Itzulpen orokorrak ez bezala, liturgiarako itzulpenak testu hutsera mugatua geratu behar dau; ezin dau oharretara jo, ez daukalako oharren baliakizunik. Eta geroago ikusiko dogunez, liturgiarako itzulpena testuan bertan be ezin da bermatu eta babestu. Izan be, ospakizun liturgikoaren testuinguruan entzuleok ez gara testuaz baliatzen, testua ahozko aldarrikapenean bakarrik heltzen jaku-eta. Horra hor liturgiarako itzulpenaren baldintza garrantzitsuak eta muga larriak.

### **2.5. EAB: ulergarritasunaren aldeko apustua**

Biblia-itzulpenari buruzko bigarren atal hau amaitzeko, EABren inguruko ohar batzuk eskeiniko dodaz. Horretara, egoki kokatuta geldituko da hirugarren atala, liturgiarako itzulpena, eta baita liturgiarako euskal itzulpenaren azken bermoldaketa be.

EABren itzultzaileen taldeak gogoeta nahiko sakona egin eban, bere sasoiari, itzulpenaren problematikaren inguruan eta Biblia-itzulpenaren inguruan berariaz. “Katoliko talde baten eta Bibli Elkarte Batuetako ordezkarien artean erabaki zen 70eko hamarkadan Itun Berria itzultzea, asmoa bideratzerakoan 77ko irailean Arantzazun batzarre zabal bat egin zelaririk. Ondoren, lehen argitalpena agorturik, berriro elkartu ziren alderdi biak (katolikoak eta protestanteak) Itun Zaharra euskaratzeko erabakia hartuz eta, lanari ekin ahal izateko zertzeladak zehazterakoan, urte bereko irailean Lazkaon, beneditarrenean, itzulpenari buruzko mintegia egin zelaririk. [...] Vatikanok eta Bibli Elkarte Batuek horrelako itzulpen-lanetarako egina duten akordioa onartu zen”<sup>6</sup>.

<sup>6</sup> “Vatikanok eta Bibli Elkarte Batuek horrelako itzulpen-lanetarako egina duten akordioaren (“Bibliaren itzulpengintzan elizen arteko elkarlanerako arauak” izeneko hori 1987an berriro zen) bidetik jotzea erabaki zen eta horretan saiatu dira itzultzaileak” (Bibli Elkarte Batuak & Euskal Herriko Elizbarrutiak, 1994: XI).



Mintegiak, bada, aintzat hartu eta onartu egin zituan Bibli Elkarte Batuen barruan eukezan ebazpideak. Eta Bibli Elkarte Batuak erakundeak eratu eban, euskal eleizbarrutietako ordezkariekin batera, eta neurri handi baten finantzatu be berak egin eban asmoa eta proiektua. Malgutasunez erabili ziran, horraitino, ebazpideak eta teknikak, BEBk bultzatutako beste itzulpen batzutan baino erradikaltasun gitxiagoz (gaztelaniazko “Santa Biblia, Dios habla hoy” edo italierazko “Parola del Signore. La Bibbia in lingua corrente” itzulpenetan baino zabalago).

Izan be, bageunkan malgutasunerako eta zuhurtziarako arrazoia: gaztelaniaz irakurleak baeukan itzulpen desbardinak alderatzeko aukera, eta bere beharrizan eta interesen arabera bata edo bestea erabiltzeko posibilidadea; euskeran ez egoan posibilidade hori. Beraz, buztartu eta konbinatu egin behar ziran irakurleagazko hurkotasuna alde batetik, –testua bat-batean ulergarria– eta jatorrizko testuaren bestetasun edo alteridadeagazko begirunea bestetik (horra testu motako ohar ugariren oinarria).

Korrelatiboak dira irakurleagazko arreta eta testuaren ulergarritasunaren aldeko apustua. Asmo nagusi bat izan dau EABk: itzulpen orok jagon behar dauan leialtasun bikotxean, jatorrizko testu(inguru) eta hizkuntzagazkoa eta baita hartzaile edo jasotzaileagazkoa be; oreka lortzeko, lehenengoak ez dagiala zapaldu bigarrena, lehenengoagazko leialtasunak ez deiola kalterik egin bigarrenagazkoari.

Jasotzailea mugatzea faktore oso garrantzitsua da egin gura dogun itzulpen mota ebazterakoan. EABren kasuan ez zan bape erreza irakurlearen profil zehatz bat finkatzea. Biblia, benetan, ez da liburu elitista bat; herriarentzako liburua da, bai bere jatorrian bai eta bere harreraren historian be. Bibliak, bada, euskal testuinguru eta eremu jakinetik, erabiltzaile askota-

riko eta askorengana zabaldu behar eban, hartzaile pribilegiatu modura talde jakin bat adierazo eta zehaztu gabe.

Aurkezpeneko orrialdean agertu genduan, zehatz-zehatz ez bazan be, geure asmoa: “Asmoa ez da izan Biblia euskal elite batentzat ematea. Xedea, Biblia euskara-maila nahiz biblia ezagutza berezirik ez duen jende arrunt eta xehearen eskura jartzea izan da, adituagoak ahaztu gabe, noski”. (Bibli Elkarte Batuak & Euskal Herriko Elizbarrutiak, 1994: XI). Helburu komunikatiboa, alegia.

Hartzaileak mugatzen dau hizkera-maila. EABk bilatu ebana hauxe izan zan: persona alfabetatuentzat eta euskeraz irakurtzeko ohituraren bat behintzat baeben personentzat ulertzeko eragozpen berezirik leporatzen ez eban hizkera erabiltzea.

Hori lortzeko hiztegi ezaguna eta ahal bestean zabalduena erabiltzea bilatu zan, eta esaldi luzeak eta gramatika-forma korapilatsuak alde batera iztea (aditz-forma gatx eta oso gitxi erabiliak, adibidez). Guk erabiliko genduan hizkerak kaleko hizkera arruntetik ez eban alde egin behar, eta egunero egiten zan hizkeratik ahalik eta gertuen egotera jo behar eban. Irakurterreza izan behar eban testuak, eta horrez gain, entzunaz beste barik errez ulertzekoa. Egia da, bai, Biblia anitza eta askotarikoa dana, eta atal batzuk ia sekula ez dirana eskeintzen, beste batzuk, ostera, sarri be sarri entzun eta irakurtzen dirana. Oso gitxi dira irakurketa sistematikoa egiten ausartzen diranak; gehien-gehienek –eta baita liturgiak be– irakurketa *selektiboa* egiten dabe. Eta EABk aparteko ahalegina egin dau gehien irakurtzen eta erabiltzen diran sail eta atal horreetan ulertzeko eragozpenak eta oztopoak ekidin edo gitxitzeko behintzat.

Euskal itzulpenak, eta hatan be liturgiarakoak, garbizalekeriak jota egon izan dira, alboko hizkuntzen eragina osorik bazterteaz arduratuta, ezelango mailegurik onartu ezinik, er-

dal itxurako hitzak erabiltzearen aurkako, hainbestearino ze, beste inon erabiltzen ez zan “argota” sortzeraino behin baino sarriago. Horretara, halako arkaiko sunda bat lotu jake. Ikuspuntu honetatik begiratzuz, EABren hizkerak normaltasun handiagoa erakusten dau, aurretiaz presentzia mugatua eukan esparruetara hizkera zabalduz.

Ezaugarri eta bereizgarri horreetako batzuk bat datoz liturgiarako itzulpenak bere-bereak eta aproposak dituan bereizgarriekin. Beste batzuk, ostera, erabat desbardinak dirala esan behar liturgiarako itzulpenetan ohikoak izan diranekin: *tradizinoagazko lotura eta eleiza barrurako zuzendua izatea*, eleiztarrentzat egokitua izatea, adibidez. EAB ez da egin eleiz inguruari begira, eleiztarrez aparte gizarteko persona eta eremuetara egokitu gura izan dau, eleiz-munduagaz zuzeneko loturarik eta zerikusirik ez daben guneetara zabalduz.

*Lontzo Zugazaga*

[Jarraitzeko]